

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARAMAIOKO UDALA

2026ko lehen lauhilekoari dagokion etxerako ur hornidura, estolderia eta zabor bilketa zerbitzuaren tasaren errolda, jendaurreko erakusketa eta ordainaldia

Etixerako ur hornidura, estolderia eta zabor bilketako zerbitzuaren tasaren errolda, 2026ko lehen lauhilekoari dagokiona, jendaurrean jartzen da, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 15 laneguneko epe barruan interesdunek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak udal bulegoetan aurkeztu ahal izateko.

Aipatutako epean erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, errolda behin-betirako onartuko da.

Erreziboak ordaintzeko epea, lekuak eta medioak ondokoak dira:

Epea: 2026ko uztailaren 20tik 2026ko irailaren 20ra, biak barne.

Helbideratutako erreziboak, baimendutako finantza erakundeetan eta zergapekoak agindutako kontu korrontean zordunduko dira egun honetan: 2026ko abuztuaren 6an.

Helbideratu gabeko erreziboak, ostera, zergapekoak adierazitako zerga-helbideetara bidaliko ditugu, eta Udalak dauzkan finantza entitate kolaboratzaileetako bulegoetan (Kutxabank eta Laboral Kutxa) egin beharko da ordainketa. Agiri hori eskura eduki ezean edo 2026ko abuztuaren 20an agiri hori jaso ez bada, udaletxean, bulego orduetan, eskatuko du agiria, borondatezko ordainketa aldian.

Borondatezko epean zorra ordaintzen ez bada, premiamendu prozedura betearazleari ekingo zaio eta fase horri dagokion errekaruak, berandutze interesak, eta hala badagokio, kostuak gehituko zaizkio hasiera zenbatekoari.

Aramaion, 2026ko ekainaren 17an

Alkatea

ASIER AGIRRE MUGARTZA